STEILASBERRI

NAFARROA

1.

STEILASen informazio elektronikoa • 2026/09/03

Mahai sektoriala. Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Lanbide Heziketako Sektore Berezietako oposizioen deialdia

Gaur aurkeztu digute deialdiaren zirriborroa eta berrikuntzak hauek dira:

- **Atzerriko titulazioak** egiaztatzeko, horien homologazioa edo baliokidetasun aitorpena gehitu dute. Kontratazio zerrendei dagokionez, baliokidetasuna lortuz gero, oposizioa gainditu beharko da zerrendetan egoteko.

- **72 lanpostu erreserbatuko** dira % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten izangaientzat. Lanpostu horien banaketa espezialitateka erabakiko du Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak, bertan erroldatutakoen titulazioen arabera.

- **Sexu-izaerako delituen ziurtagiria:** izangaiek aukera izanen dute Hezkuntza Departamentuari emateko ziurtagiri hori eskatzeko ahalmena. Eskaera hori soilik eginen litzateke funtzionario lanpostua erdiesten dutenekin.

- Oposizioetako **epaimahaietako kideak**: salbuesteko arrazoia izanen da 2016tik aurrera egindako oposizio deialdietan epaimahaikide aritu izana, beti ere, funtzionario aski baldin badira espezialitate eta hizkuntza horietan epaimahaiak osatzeko.

- Deialdi honetan **espezialitate berriak** eskuratzeko aukera izanen da.

- Merezimenduen artean **italieraren titulazioa** aintzat hartuko da, 30/2011 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera.

- **Hizkuntza Eskola Ofizialtetako programazioetan** eta unitate didaktikoetan ikaskuntza-egoerak desagertuko dira.

Ohi denez, Langileriaren Zuzendari Nagusiak ez ditu erantzun egin dizkiogun galdera gehienak.

www.steilas.eus

Araba ✆ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ✆ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ✆ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ✆ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus